

GAIA: 2021-2022 DENBORALDIRAKO TALDE FEDERATUEN IZENA EMATEKO EPEA
NORENTZAT: GIPUZKOAKO SASKIBALOI ELKARTE GUZTIAK

Atsegin handiz jakinarazten dizuegu 2021-2022 denboraldirako GSFk antolatzen dituen lehiaketetan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dagoela, eta ondoren zehazten den egunean bukatuko dela:

Senior, junior eta kadete errendimendu taldeak dituzten klubek, beraien taldeak <https://intrafeb.feb.es/oficinawebclub> webguneko "Oficina web de Clubes" plataformatik egin behar dute (FEBak 2021ko ekainaren 21ean irekiko du programa). Bertan erabiltzailea eta pasahitza sartu beharko dute. Inskripzioa egin ahal izateko, klubaren fitxa sartu beharko da plataforma berdinean. "Oficina Web"-eko eskuliburua GSF-ko webgunean, gisaski.eus, aurkitu dezakete.

Klub Fitxaren datuak (derrigorrezkoak), GSFaren web orrian sartu behar dira, Klubak sarbidean - Klubaren datuak: Klubaren, lehendakariaren eta idazkariaren datuak bete edota berrikusi

Errendimenduko kadete taldeek Diputazioak taldeen inskripzio epea zabaltzen duenean, izenematea Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egin beharko da ere, 2021eko irailaren 9ra arte (lizentziak 2021eko irailaren 17ra arte).

Partaidetzako kadete eta infantilen izen emateak, helburu honetarako Foru Aldundiak duen sistema informatikoaren bitartez egingo dira.

- Lehiaketak: Probintziako gizonezko seniorren 1. eta 2. maila, emakumezkoen seniorrak 1.maila, errendimendu juniorrak, errendimendu kadeteak: **2021ko uztailak 7 (13:00), asteazkena** (FEBak 2021ko ekainaren 21ean irekiko du programa)
- Lehiaketak: Gizonezko seniorrak 3. maila, emakumezko seniorrak 2. maila, parte hartzeko juniorrak: **2021ko irailak 15.**
- Parte hartzeko kadeteak eta infantilak: **2021ko irailak 15, Foru Aldundian, Internetez.**
- Lehiaketak: Errendimenduzko eta aprte hartzeko miniak eta benjaminak: **2021ko irailak 30, Foru Aldundian, Internetez.**

PLAZA HUTSAK: Honen bidez jakinarazten dizuegu lehen mailan edo errendimenduan jokatu nahi duten probintziako bigarren mailetak edota partaidetzako klubek **IntraFEB bidez, taldea inskribatu beharko dute eskubideak dituzten kategorian eta eskubideak eskatu goragoko kategorian, azken horren inskripzio-kuota ordainduz, uztailaren 7aren 13:00ak baino lehen.** Eskaera egin eta izen-ematea gauzatu duten taldeek izango dute aukera lehen mailetan hutsik geratzen diren plazak betetzeko. (ikusi bete gabeko lekuei buruzkoa, zirkular honen amaieran.)

Epez kanpo iristen den izen-ematerik ez da onartuko, ezta behar bezala beteta ez dagoenik ere.

GSFn INSKRIPZIO-KUOTA

Aurrerago adieraziko diren ekipoen inskripzio-kuotak Batzar Nagusiak aztertu eta onartuko ditu, eta, kasu horretan, beharrezko egokitzapenak egingo dira, kontuan hartuta ez daukagula behar bezalako informaziorik Euskadiko Saskibaloia Federazioari eta, batez ere, Espainako Saskibaloia Federazioari buruz.

Kuota hori Kutxabankeko 2095 5009 73 1061453543 kontu korrontean ordaindu beharko da, edozein surkurtsaletan, dirua sartu duen kluba zein den adierazi beharko da, eta **taldeak inskribatzeko unean maribel@gisaski.eus helbidera nahitaez bidali beharko den kopia bat eskatuko da.**

2021ko Ekainaren 30a baino lehenago Federazioarekin bere zorrak ordaindu gabe dituzten klubei ez zaizkie inskripzioak onartuko

IZENA EMATEKO KUOTAREN ZENBATEKOA

KATEGORIA	GSFren KUOTA
Seniorrak	350€
Errendimenduko juniorrak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	220€
Parte-hartzeko juniorrak (Bigarren mailak)	60€
Errendimenduko kadeteak (Lehen mailak+Euskadiko Liga)	220€
Parte-hartzeko kadeteak (Bigarren mailak)	60€
Errendimenduko Infantilak	110€
Parte-hartzeko Infantilak	60€
Mini Errendimendua	33€

PLAZA HUTSAK

Zuzendaritza Batzordearen 2021.02-25eko erabakia, klub guztiei 2021.02-26an igorria (INFORMAZIO-OHARRA):

20/21 kirol-denboraldia baliogabetzat jotzea. Horrek honako hau dakar:

- Ez da jaitsierarik edo igoerarik izango GSFk antolatutako ezein lehiaketatan, eta, beraz, parte hartzen duten talde guztiek eutsi egingo diete denboraldi honetan parte hartu duten ligei, 21/22 kanpainari begira.
- Federazio honek antolatutako edozein ligatan edo goragokoetan talderen bat hutsik geratzen bada, 20/21 denboraldi honetan beheragoko hurrengo kategorian jokatu den azken jardunaldiaren ondoren hobekien sailkatutako taldeari emango zaio lehentasuna

Plaza hutsik geratzen badira, GSFak erabakitzen duen izena emateko epea zabalduko da eta erabakiko du nork beteko dituen, bere irizpideen arabera, betiere aintzat harturik kirol merituak, geografia eta interes orokorra.

Donostian, 2021ko ekainaren 21an.

PD.: 2021-22 denboraldirako, 2020-21 denboraldian lortu (azterketa medikoa egin) duten jokalaria, entrenatzaile eta epaileei ez zaie eskatuko saskibaloian aritzeko gaitasunaren ziurtagiri medikoa aurkeztea.